



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

69. INFORMAZIO BULETINA

> 2012ko Uztaila eta Abuztua



GIPUZKOA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2012ko Uztaila eta Abuztua

NABARMENDU BEHARREKOA

> Herritarren % 78 Europa 2020 Estrategiaren alde dago

2012ko udaberriari dagokion Europako Batzordearen Eurobarometroak erakusten duenez, Europako herritarren % 78k Europa 2020 Estrategia Europako pobrezia eta gizarte-bazterketari aurre egiteko tresna egokitzat hartzen du, baita lan-merkatua modernizatzeko/eguneratzeko eta enplegu maila goratzeko ere (galdetutako biztanleriaren % 78).

Era berean, biztanleen % 40k (aurreko urtean baino % 2 gehiagok) Europar Batasuna krisitik irteteko eta munduko erronka berriei aurre egiteko bide onetik doala uste du.

Egungo egoerari aurre egiteko EBko herritarren lehentasun nagusiak dira: lan-merkatua modernizatzea, enplegua sortzeko eta pobrezia eta gizarte-bazterketako egoeran daudenei laguntzea. Gainera, 10 europarretik 8k pentsatzen du kide diren herrialdeek lankidetzeta estuagoan jardun behar luketela.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/eb/eb77/eb77_en.htm

> Euroguneko eta EBko BPGd % 0,2 jaitsi da bigarren hiruhilekoan

2012ko bigarren hiruhilekoari buruzko Eurostateko datuen arabera, euroguneko herrialdeetako (EB-17) eta EB-27ko herrialdeetako Barne Produktu Gordina % 0,2 gutxitu da bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Jaitziera hori % -0,4 eta % -0,2 artekoa da, hurrenez hurren, urtetik urterako datuei dagokienez aztertuta.

Bestalde, % 0,4 igo zen BPGd Estatu Batuetan, 2012ko aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 0,3, Japonian.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/2-14082012-BP/EN/2-14082012-BP-EN.PDF



> 2013ko Europar Batasuneko aurrekontua

Uztailaren 9an, Europako Parlamentuak eta kide diren herrialdeek 2013. urterako Europar Batasuneko aurrekontua idazteko negoziazioei heldu zieten.

Aurrekontuak hazkundearekin eta enpleguaren sorrerarekin bateragarria izan behar duela adierazi zuten eurodiputatuek eta Batasuneko gobernuei behar ez den murrizketarik ez egiteko eskatu zieten, horrek EBri krisitik irteten lagun diezaioketen inbertsioak gutxituko bailituzke.

Diputatuek urriaren hasieran parlamentuko batzordean eta urriaren 23ko batzarrean bozkatuko dute 2013ko aurrekontua.

Informazio gehiago:

<http://www.europarl.europa.eu/news/es/headlines/topic/Budget>



KOHESIO-POLITIKA

- > Etorbizuneko eskualde politikak izapide burokratikoak % 20 arte murriztuko dituela aurrez ikusten da

Eskualdeko Politikaren Zuzendaritza Nagusiak eskatutako “Arau-baldintzen aldaketak kostu administratiboetan dituen ondorioen neurketa eta EBko Egitura Funtsen kudeaketak sortzen duen karga administratiboa: EGEF eta Kohesio Funtsa” azterketak egitura-funtsen onuradunek jasandako karga administratiboa murrizteko tarte nabarmena dagoela ondorioztatzen du.

Azterketak tarte hori % 20an baloratzen du; Europako Batzordeak 2014-2020 aldirako proposatutako sinplifikazioak aplikatuta eskuratu daiteke hori.

Proposatutako funtsezko sinplifikazioak dokumentuen bidalketa elektronikoari (kohesio elektronikoa), diruz laguntzeko sinplifikatutako arau berriei eta Europar Batasuneko funtsetarako arauen harmonizazioari buruzkoak dira. Kide diren herrialdeek eta eskualdeek ere, finantziarioa mugatutako eremuetan bilduta eta kudeaketa eta kontrol mailak gutxituta, kostu administratiboak murriztu ditzaketela baieztatzen du azterketak.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/measuring/measuring_impact_report.pdf



> Euskadi EB-27n

Eustatek Euskadi, Europar Batasuna eta kide diren herrialdeak alderatzen dituen adierazleak argitaratu ditu, Euskadik Batasuneko eta kide diren gainerako herrialdeen testuinguruan duen egoeraren ikuspegia izateko helburuarekin.

Argitaratutako datuak honako alderdi hauei buruzkoak dira, besteak beste: jaiotza-tasaren indizea, biztanleriaren bizi-itxaropena, biztanleriaren prestakuntza maila eta enpresen I+G jarduerak.

Eraitza zehatzei dagokionez: alderdi demografikoetan, Euskadiko jaiotza-tasa EB-27ko herrialdeetako batez bestekoaren azpitik dago, baina euskal emakumeen bizi-itxaropena, aldiz, EB-27ko altuena da (85,7 urte).

Bestalde, 30 eta 34 urte arteko euskal biztanleriaren % 42,6k goi mailako hezkuntza maila du. Ehuneko horrek EB-27ko herrialdeetako % 34,6ko batez bestekoa lasai gainditzen du.

2010. urtean Euskadin I+G jardueretan egindako gastua BPGd-ri dagokionez, EBko herrialdeen batez besteko mailaren gainetik dago (Euskadin BPGd-ren % 2,08 eta EB-27n, berriz, % 2,0).

Informazio gehiago:

http://es.eustat.es/ci_ci/estadisticas/tema_198/opt_1/tipo_6/temas.html#ixzz24wfOtTu9



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2012ko Uztaila eta Abuztua

EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Hiri eta eskualdeetarako Europa 2020 Estrategia

Tokiko eta eskualdeko erakundeek Europa 2020 Estrategiako helburuak lortzeari dagokionez duten eginkizunari buruzko eskuliburua argitaratu du Eskualdeetako Batzordeak.

Europako tokiko eta eskualdeko erakundeek Europa 2020 Estrategia betetzen laguntzeko moduari buruzko informazioa jasotzen du dokumentu horrek. Benetako jardunbide egokien adibideak jasotzen ditu eta dagoen informazio eskuragarriaren ikuspegi orokorra, finantziazio-baliabideak eta Europa 2020 Estrategiarekin lotutako bestelako tresna politikoak eskaintzen ditu.

Informazio gehiago:

<http://portal.cor.europa.eu/europe2020/SiteCollectionDocuments/Europe%202020%20Handbook%20for%20Local%20and%20Regional%20Authorities.pdf>

> Ikerketaren eta berrikuntzaren merkatu bakarra

Kide diren herrialdeek Europako Ikerketa Esparrua (EIE), ikerketaren merkatu bakarra eta Europako berrikuntza lortzeko hartu beharreko neurri zehatzak aurkeztu ditu Europako Batzordeak. Horren helburua ikertzaileei, ikerketa-erakundeei eta enpresei lankidetzeta eta jarduera erraztea da, kide diren herrialdeen arteko mugak albo batera utzita. Europako Ikerketa Esparrua Europar Batasuna benetako "Berrikuntzaren batasuna" bilakatzeko proiektuan jasota dago.

Hori horrela, Europako Ikerketa Esparrua (EIE) gaitzeak kide diren herrialdeetako ikerketa-oinarriak indartuko ditu, horien lehiakortasuna areagotuko du eta erronka sozial nagusiei –klima-aldaketa, segurtasun energetikoa eta elikaduraren segurtasuna eta osasun publikoa– aurre egiterakoan eraginkortasun handiagoarekin laguntzeko aukera emango die.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/12/788&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=fr>



> Eraikuntzaren eta eraikuntzako enpresen sektoreko lehiakortasun iraunkorrerako estrategia

Eraikuntzaren sektoreak postu garrantzitsua du Europako ekonomian; izan ere, BPGd-ren % 10 inguru sortzen du eta hogeit hamar milioi lanpostu sortzen ditu, mikroenpresa eta enpresa txikietan nagusiki.

Eraikuntzako enpresen lehiakortasuna, beraz, funtsezko alderdia da, ez soilik hazkunderako eta enplegurako, oro har, baita sektorearen iraunkortasuna bermatzeko ere. Eskaera sustatzeko eta inbertsioak areagotzeko politika egokiak bultzatuta, sektoreak modu esanguratsuan eragingo luke enpleguaren sorreran, etorkizun handiko zenbait alorretan jarduera areagotuta, eraikinen eta azpiegituren berrikuntzan, esaterako.

Hori horrela, eraikuntzako sektorearen iraunkortasuna erabakigarria da EBk epe luzera berotegi-efektuko gasen emisioa % 80 eta % 95 artean murrizteko duen helburua lortzeko.

Hori dela eta, sektoreak gaur egun eta 2020 arte aurre egin beharreko erronka nagusiak identifikatu ditu Europako Batzordeak komunikatu batean, hau da, inbertsioa, giza kapitala, ingurumen-baldintzak, arau-baldintzak eta merkatuetarako irisgarritasuna aipatu ditu eta sektoreari babesa emateko ekimenak proposatu ditu.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/staging/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2012:0433:FIN:ES:PDF>

> Kapital-arriskuko mugaz haraindiko inbertsioetan dauden zerga-oztopoei buruzko kontsulta


Europako Batzordeko zerbitzuek kontsulta publiko berria jarri dute abian, kide diren herrialdeetan kapital-arriskuko funtsetan inbertitzean sortzen diren zerga-arazoei buruzko esperientziak biltzeko; nagusiki zergapetze bikoitzari dagokionez.

Horrekin, Batzordeak arazo horien arazoak zehaztu nahi ditu, kide diren zein herrialdeetan sortzen diren jakin nahi du eta horiek inbertsiogileentzat nahiz herrialdeentzat duten kostu ekonomikoa zein den ezagutu nahi du.

Interesa duten alderdiek kontsultan parte har dezakete azaroaren 5a bitartean ekarpenak eginda.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/taxation_customs/common/consultations/tax/2012_venture_capital_en.htm



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Zor publikoa Europan

Dokumentu honek Eurostatek urtero egindako galdeketaren emaitzak azaltzen ditu, Europar Batasuneko kide diren herrialdeetan zorrak duen egitura ezagutu eta aztertzeko.

Kide den herrialde bakoitzeko zorrari buruzko informazioa jasotzen du azterketak: ohiko finantza-tresnak, epeak, jaulkipen-moneta...

Jasotako emaitzen arabera, 2011n Grezia zen zor maila handiena zuen herrialdea (BPGd-ren gaineko % 132) eta horren atzetik zeuden Italia (% 123) eta Portugal (% 112). Irlandan zorrak % 109ra egin du gora, Belgikan % 102koa da, Frantzia % 89koa eta Erresuma Batuan, berriz, % 86koa. Alemanian, % 82koa da administrazio publikoen zorra, Hungarian % 79koa eta Maltan eta Zipren, aldiz, % 75koa. Horien atzetik daude Austria (% 74) eta Espainia (% 72).

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-12-034/EN/KS-SF-12-034-EN.PDF

> Gobernuaren kalitatea Europar Batasuneko herrialdeetan eta eskualdeetan

Europar Batasuneko kide diren herrialdeetan eta horiek osatzen dituzten eskualdeetan "gobernuaren kalitateari" buruzko datu berriak azaltzen dituen lan-dokumentua (QoG, ingelesezko sigla). "Gobernuaren kalitatea" kontzeptua ustelkeria maila baxua eta zuzenbide-estatuaren babes handia eta gobernuaren eraginkortasun eta erantzukizun handia duten gobernu gisa hartu behar da.

Txostenak estatu mailako datuak erakusten ditu, gobernuaren kalitate mailaren (altua, ertaina eta baxua) arabera herrialdeak hiru taldetan banatuta. Horrez gain, eskualde mailan jasotako datuak ere azaltzen ditu (Europar Batasuneko 172 eskualde), 18 herrialdetako 34.000 biztanleri egindako galdeketan oinarrituta.

Bi neurketak eskualdeen arteko alde nabarmenak azaltzen dituen indize sintetikoan konbinatzen dira: emaitza maila altuak dituzten zenbait eskualde EBko eskualde onenen artean sailkatzen diren bitartean (horien artean Euskadi azpimarratzekoa da), herrialde beretako beste eskualde batzuk EBko batez bestekoaren azpitik daude.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/work/2012_02_governance.pdf